



KODE ETIKOA

1. Definizioa

Kode Etikoa Kooperatibak bere eginkizuna garatzeko oinarri hartzen dituen balioak eta helburuak lortzeko sustatu nahi duen jokabidea biltzen dituen dokumentua da.

2. Aplikazio-eremua

Kode Etikoak erakundeko pertsona guztien (bazkideak, Errektore Kontseilua, Gerentzia, Talde Teknikoa eta tokiko taldeak) eta aliatu nagusien jokaeraren inspirazio-iturri izan behar du negozioa garatzeko orduan.

3. Balioak eta jokabidea

Som Energiak % 100 berriztagarria, ekitatiboa eta efizientea den eredu bat eraiki nahi du, herritarren esku dagoena, eta partaidetzak zein gardentasunak bultzatutakoa. Horrez gain, Kooperatibak eredu energetikoa aldatzeko tresna aktiboa izan gura du, inpaktu sozial eta ekonomikoa eragiteko ahalmena duena.

Helburu hori lortzeko, **balio** hauek ditu ardatz:

- 1) **JASANGARRITASUNA** ingurumenari, baina baita gizarteari eta ekonomiari dagokionez ere. Gure ekoizpen elektrikoa iturri berriztagarrietatik dator eta merkaturatzen dugun energia % 100 berriztagarria da; baina ulertarazi nahi dugu ere behar-beharrezkoa dela energiaren erabilera eta ekoizpena minimizatzea.
- 2) **KOOPERATIBISMOA**. Lan egitean autogestioa, erantzukizuna, demokrazia, berdintasuna eta elkartasuna ditugu beti oinarri; hortaz, erakundea bazkide guztion artean demokratikoki kudeatzen dugu. Bazkide guztiok eskubide, betebeharrak eta aukera berberak ditugu, eta erabakietan aktiboki parte hartzen dugu.
- 3) **EKITATEA**. Inor baztertzen ez duen eta pertsona guztiekin justua den gizarte-eredu hurbil eta errukitsu baten alde agertzen gara. Eta, horrez gain, pertsona guztiei (generoa, sexu-identitatea, adina, arraza, kolorea, nazionalitatea, gizarte-maila, hizkuntza edota erlijioa zein den ere) aukera berberak, errespetu eta tratu bera eskaintzen dien, eta pertsona guztien eskubideak, lan- zein promozio-aukerak, eta prestakuntza jasotzeko eta komunitatearen ondasun zein zerbitzuak erabiltzeko aukera bermatzen dituen eredu, errealitate anitzei tratu ekitatiboa ematearren.
- 4) **PRESTAKUNTZA**. Gure sektorea konplexua eta gu kooperatiba izaki, Som Energia osatzen duten pertsonen etengabeko prestakuntza eskaintzera behartuta gaude, haien erantzukizuna betetzeko, haien iritzia azaltzeko, erabakitzeko eta eraginkortasunez jarduteko beharrezko gaitasunak dituztela bermatzearen.



Era berean, Som Energiak ulertzen du, bere helburua lortzeko, **erakundeko kide diren pertsonak eta negozioa garatzen laguntzen diguten aliatuek** honako **jokabide** hauek beren egin behar dituztela:

- 1) **KONFIANTZA.** Gure lan egiteko modua hurbila da, naturala, eta talde zein pertsonen arteko konfiantzan oinarritzen da (bai Talde Teknikoaren eta Errektore Kontseiluaren artean, bai Talde Teknikoaren eta tokiko taldeen artean eta, oro har, Som Energia osatzen duten alor eta pertsona guztien artean). Horri esker, pertsona guztiek konfiantza osoan lan egiten dute, badakitelako gizarte-oinarriaren gidalerroak eta Talde Teknikoak gainbegiratzen eta kontrolatzen dituen Errektore Kontseiluaren ildo estrategikoak errespetatzen dituztela betiere.
- 2) **PARTAIDETZA.** Pertsona informatuak, prestatuak nahi ditugu, eredu energetikoaren nondik norakoak erabakitzeke gauza direnak. Kooperatibako bazkide guztiek benetan parte hartzea nahi dugu, gure jarduera errazteko, sustatzeko eta proiektatzeko; horrela, gure gizarte-oinarriaren potentziala aprobetxatu ahal izango dugu defendatzen dugun eredu energetikoaren aldaketan inpaktua handiagoa lortu ahal izateko.
- 3) **ERRESPETUA.** Proiektu eta espazio jakin batzuk partekatzen dituen komunitate anitza gara. Som Energian elkartzen garen pertsona guztien arteko errespetua dugu oinarri, hau da, harreman eta elkarreragin harmoniatsua ahalbidetzen dituen tratu adeitsu eta tolerantzia, pertsona guztien eta gure proiektu komunaren mesederako. Ez dugu ezein motako diskriminaziorik edota erasorik onartzen, eta are gutxiago sexu-erasorik; beraz, halako jokabideak ikustean, gure komunitateak irmo erantzutea espero dugu.
- 4) **USTELKERIAREN AURREAN, ZERO TOLERANTZIA ETA INTEGRITATEA.** Sinetsita gaude gure helburuak zintzotasun, integritate eta gardentasun osoz, arauak betetzen, lor ditzakegula. Eta gure aliatuak (erakunde laguntzaileak, negozio-kideak, enpresa hornitzaileak, eta abar) ere sinetsita egotea nahiko genuke. Ez ditugu onartzen eroskeriaren, estortsioaren, errazteko ordainketen, mesede eskaera edo eskaintzen edota beste edozein ustelkeria-motaren bidezko jokabideak, negozioak edota harreman komertzialak, ezta horien bidez mozkinak lortzea ere. Gure balioekin bat etorritik, hutsik gabe kudeatzen diren negozio legalak bilatzen ditugu beti.



4. Bazkideen, kontseilarien, gerenteen, enplegatuen eta laguntzaileen obligazioak

Haien erantzukizun, zeregin eta lanak betetzean eta Som Energiaren izenean edota Kooperatibarentzat jardutean, bazkide-oinarriak, Errektore Kontseiluko kideek, gerentzia-taldeak, langileek eta laguntzaileek hitzematen dute:

- 1) Kode Etikoaren balioak ezagutzen eta bere egiten dituztela.
- 2) Kode Etiko honen, kodea garatzen duten araudien eta kodeari dagozkion legeen arabera jokatuko dutela.
- 3) Ez dituztela onartuko Kode Etikoa, kodea garatzen duten araudiak edota kodeari dagozkion legeak urratzen dituzten jokabideak.
- 4) Kode Etikoaren irismenaren eta kodea garatzen duten araudien gainean zalantzarik badute, edo Kode Etikoa zein araudi edota legeak hauts ditzakeen edozein jokabide ikusten badute, kontsultatu egingo dutela.
- 5) Kode Etiko hau urratzen duten jokabideak ohartarazi edota salatuko dituztela.

Kontsultak, zalantzak, iradokizunak eta salaketak [Som Energiaren Kanal Etikora bidali beharko dira](#).

5. Ez-betetzearen ondorioak

Som Energiak urraketa larritzat jotzen du Kode Etiko hau ez betetzea eta ez-betetzek gure barne-politiketan aurreikusitako ondorioak ekarriko ditu berekin, nola lan-kontuetan hala erakunde hornitzaile eta aliatuekin dugun harremanetan.

6. Garapena, zabalkundea eta berrikuspena

Kode Etikoa Som Energiaren funtsezko prozesuetan aipatutako balioak ezartzea bermatzen duten politika eta prozeduren bidez osatu eta garatuko da.

Kode Etikoa interesa duten pertsona guztien artean zabalduko da. Gerentzia arduratuko da horretaz, Lan, Komunikazio eta Tokiko Taldeen Koordinazio alorren eta beharrezkotzat jotzen diren beste alorren laguntzarekin.

Kode Etikoa aldizka berrikusiko da eta, dagokionean, eguneratu egingo da.

7. Onarpena eta aldaketak

Som Energiaren Errektore Kontseiluak onartu zuen Kode Etiko hau **2020ko apirilaren 25ean** egindako bileran. [Blogeko albiste honetan](#) aurkezpen-eskutitza irakur dezakezu.